

# URDIAIN'GO SAN PEDRO'REN KANTAITA

Euskal kantu jatorrak izan dira iragan denboretan Urdiaingo herrian. Beste baztarretan gertatu dena, galtzen joan dira eta orain jende jarriak bakarrik dakizkite. Askok gogoan dute txuntxuna jaioro izaten zuten garaia, eta emakumeak panderuekin koplak kantatzera inguratzen ziren denbora.

Batez ere, festa burutan ba zituzten eguneko kantu bereziak. Gau eskilarekin batean ixiltzen zen txuntxuna eta gazteriak plaza beteko inguru bat eginez asten zuen bere kantaita.

Lau dira bildu ahal izan ditugun bertsuak: Pazko Mayatzekua, San Juan, San Pedro eta Azentziotako zatitxoa.

## SAN PEDROREN KANTAITA

Urdiain'ek ba du beko basoan elizatxo bat ixtilu frango sortu duena. Atal aurreko arri marratuak dionez, an goratua izan zen Napparoko lenbiziko erregea. Gaur dagon eran Altsasu eta Urdiaingo lurak artzen ditu zorigaiztoko aterpe orrek; erdi erditik dijoakio muga. Hori bai, aldea Urdiaingoan duela.

Aspaldiko epai-erabaki baten bidez Altsasuarrak garagarrillaren 29'an egiten dute beren San Pedro festa, eta Urdiain'darrak San Pedro ondoko lehen igandean. Ortako da emen esaera zaharra: «Urdiain'go San Pedro eta mundu guziko San Pedro.»

Eztabaida au dela ta mutur joka asko ezagutu omen dira bi herrien artean. Urdindarrak diote, Altsasuarrak ostua dutela lurralde hura guzia. Besteak berriz esaten diete ez ostu, ez; Urdiain'ek saldu eta txokolate (beste batzuk aguardiente), asean jana dutela.



Altsasuarreri surik aundiena San Pedroren kantuak ematen zien.  
Urdin'go neska mutil guziak eskutik arturik pausuka zabilzen eran  
kantatu ori zuten:

Migel de Fernandiz zen  
Urdiaingo semia. (bis)

Artzek estrenatu dau  
San Pedro geuria. (bis)

Artzek estrenatu ta  
auzuak lagundu,

ermita seinale bat  
basuan daukagu.

Urdiaingo Andre Maria  
guzitan seinale,

Bribilejiuak antxen  
gordetzen dirade.

Zazpi giltzaren azpiyen  
ala ere daude

ayetikan bi're  
geuriak dirade.

Antxe koronatu zan  
Naparruako errege

korona daitekela  
San Pedro ere.

Geuria San Pedro ta  
geuria «Zangitu»

Altsasun diren zurak  
geuriak ditugu.

Mari Itorrotxen sukaldian  
mugarria daukagu



Ura ere geure Urdiainek  
eginda daukagu.

San Pedro giltzakin ta  
liburuarekin

komunikatzen zaio  
Jesukristorekin;

Jesukristorekin ta  
bere Amarekin.

San Pedro zeru altuko  
giltzaren jabia,

goizian mezia ta  
arratsian salbia.

OARRAK.—Auetako bertsu bakoitza errepikatu egiten zen. Beraz binakako bertsuak ziren. Esan beharrik ez da zoin luze izaten zen kantua.

Iru edo lauengandik artu ahal izan ditugu. Osoena Juana M.<sup>a</sup> Zufiaurre eta batez ere Celestina Lizarraga zekiten. Guk emen ekartzen duguna Celestina Lizarragak esandako eran da. Alare, konturatzen gera puntu askotan aldaketak ba direla. Batez ere bertsu puntak eskaxak dira. Nola nahi dela, aspaldiko denboretako oroigarri bezala jaso egin ditugu.

José M. SATRUSTEGUI.

